*Leitzako Udala*
*(Nafarroa)*

**NATALIA RODRIGUEZ AGUADO**
**Leitzako Udalaren Idazkaria,**

**ZIURTATZEN DUT: 2016ko maiatzaren 10ean egindako batzarrean, Leitzako Udalbatzak akordio hau onartu zuela:**

**2.- <u>ANIKOTE LEITZA SL SOZIETATE PUBLIKOA BEREZKO ENTITATE INSTRUMENTAL GISARA ONARTZEA.</u>**

**Kontratu publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, ente instrumental berekitzat hartuko dira mandatuak egiten dituzten entitateez bestelako nortasun juridikoa izanik, ondoko baldintza hauek betetzen dituztenak:**

**a) Bere kabuz erabakitzeko ahalmenik ez izatea, mandatua egiten duten entitateei dagokienez horiek beren zerbitzu edo unitateak kontrolatzen dituen antzerako kontrola egiten dutelako. Entitate instrumentala sozietate bat bada eta mandatua entitate publiko batek egiten badu, entitate instrumentalaren kapital sozial osoak titulartasun publikokoa izan beharko du.**

**b) Jardueraren funtsezko zatia mandatua egiten duten entitateentzat egitea.**

**Anikote Leitza SL udal sozietateak nortasun juridikoa dauka, Leitzako Udalaz bestelakoa eta aurretik zehaztutako baldintzak betetzen ditu. Hartara, Leitzako Udalaren ente instrumentalaren adierazpena jaso dezake prestazioak eskatzeko.**

**Bestalde, aurreko legezko xedapenaren arabera, beharrezkoa da Anikote Leitza SL sozietatearen berariazko adierazpena egitea Udalaren ente instrumental gisa, unean-unean bidezkotzat juzgatzen diren prestazioak eskatzeko. Mandatuen esparrua sozietatearen helburu sozialekoa izanen da soilik. Adierazpena Nafarroako Kontratazioaren**

**CERTIFICO**: Que en sesión que el Pleno del Ayuntamiento de Leitza celebró el día 10 de mayo del 2016, se adoptó el siguiente acuerdo:

**2.- <u>DECLARACIÓN DE LA SOCIEDAD PÚBLICA ANIKOTE LEITZA SL COMO ENTE INSTRUMENTAL.</u>**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 8 de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos, se entiende por entes instrumentales propios a aquellas entidades que, dotadas de personalidad jurídica diferente de las entidades que realizan los encargos, reúnan los siguientes requisitos:

a) Ausencia de autonomía decisoria respecto de las entidades que realizan los encargos, al ejercer éstas un control análogo al que ejercen sobre sus propios servicios o unidades. Si el ente instrumental es una sociedad y el encargo lo realiza una entidad pública, la totalidad del capital social del ente instrumental deberá ser de titularidad pública.

b) Que la parte esencial de su actividad la realicen para las entidades que realizan los encargos.

La sociedad municipal Anikote Leitza, S.L. es una entidad dotada de personalidad jurídica distinta de la del Ayuntamiento de Leitza que reúne los anteriores requisitos, por lo que es susceptible de ser declarada ente instrumental del Ayuntmaiento de Leitza para el encargo de prestaciones.

A su vez, de conformidad con la anterior disposicón legal, es necesaria la declaración expresa (que se anunciará en el Portal de contratación de Navarra con expresión del ámbito al que se pueden circunscribir los encargos) de la Sociedad Anikote Leitza, S.L. como ente instrumental del ayuntamiento para el encargo de las prestaciones que en cada momento se consideren oportunas,

LEITZAKO UDALA - Elbarren, 1 - 31880 LEITZA (Nafarroa) ☎ 012 udal informazioa • 948 510 009 - Fax 948 510 816 / IFZ P-3114800J • www.leitza.net • leitza@leitza.net

**Atarian iragarriko da, mandatuak zein esparrutakoak diren adierazita.**

circunscribiendo el ámbito de los encargos al objeto social de la sociedad.

**Aurreko guztiaren babespean, Leitzako Udalak aho batez ERABAKI DU:**

Teniendo en cuenta todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Leitza por unanimidad ACUERDA:

**1. Anikote Leitza SL sozietatea Leitzako Udalaren ente instrumental deklaratzea, 6/2006 Foru Legearen 8. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta zehaztea helburu sozialean ezarritako xedekoak edo jarduerakoak izan daitezkeela mandatuak.**

**1.- Declarar expresamente a la Sociedad Anikote Leitza, S.L. ente instrumental propio del Ayuntamiento de Leitza, a los efectos de gestionar de forma directa el servicio público de gestión de las instalaciones deportivas de esta administración, de conformidad con lo previsto en su objeto social y en el ámbito de este municipio.**

**2.Erabaki honen edukia Nafarroako Kontratazioaren Atarian eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”””””**

**2.- Publicar el presente acuerdo en el Portal de Contratación de Navarra y en el Boletín Oficial de Navarra.**”””

**Honela jasota gera dadin eta ondorio osoak sor ditzan ziurtagiri hau luzatzen dut.**

Y para que así conste, y surta plenos efectos expido el presente certificado.

Leitzan, 2016ko ekainaren 23 a.

**VºBº**

**Mikel Zabaleta Aramendia**

**Idazkariak,**

**Natalia Rodríguez Aguado.**